

Biktima hauen senitartekoek zuzenean jasoko dute oroimen-koadernoak

Alfredo Ramos Vázquez

Trapagaranen hil zuten 1980/01/23an. 55 urte zituen, eta bi alaba. Ostalaria. Barakaldoko Stadium tabernaren jabea.

Barakaldoko bere establezimenduan bahitu zuten, emaztearen, alabetako baten eta iloba baten aurrean. Trapagaranera, Zugaztietara, eraman zuten, eta bertan egin zioten itaunketa, hil aurretik. Bere izena, Jesús García Garcíaarena bezala, Xavier Vinader kazetariaren erreportaje batean argitaratu zen *Interviú* aldizkarian, biak "talde inkontrolatuetan" inplikatu gisa.

Alfredo Díez Marcos

Ispasterren hil zuten 1980/02/1ean. Guardia Zibila zen, 25 urte zituen eta seme bat zuen.

Su-armak eta eskuzko granadak erabiliz egindako atentatuan hil zuten. Lagako hondartzara mortero eta granadekin ariketak egitera zihoan Guardia Zibilaren konboi bateko lau ibilgailuetako batean zegoenean, Ispasterko (Bizkaia) eremu basogabetu batetik egin zioten eraso. Beste bost guardia zibil hil ziren: José Gómez Trillo, José Antonio Martínez Pérez-Castillo, Victorino Villamor González, José Gómez Martiñán eta Antonio Marín Gamero; bai eta ETAko bi kide ere: Goio Olabarria Bengoa eta Xabier Gorrotxategi Agote.

José Martínez Pérez-Castillo

Ispasterren hil zuten 1980/02/1ean. Guardia Zibila zen, 26 urte zituen eta ezkongabea zen.

Su-armak eta eskuzko granadak erabiliz egindako atentatuan hil zuten. Lagako hondartzara mortero eta granadekin ariketak egitera zihoan Guardia Zibilaren konboi bateko lau ibilgailuetako batean zegoenean, Ispasterko (Bizkaia) eremu basogabetu batetik egin zioten eraso. Beste bost guardia zibil hil ziren: José Gómez Trillo, Alfredo Díez Marcos, Victorino Villamor González, José Gómez Martiñán eta Antonio Marín Gamero; bai eta ETAko bi kide ere: Goio Olabarria Bengoa eta Xabier Gorrotxategi Agote.

Luis Martos García

Irunen hil zuten 1980/04/16an. Guardia Zibila zen, 29 urte zituen eta seme bat zuen.

Irungo Santiago zubiko mugako kontrol-kabina batean, kamioilari baten dokumentazioa kontrolatzen ari zenean, egin zioten tiro. Kabina berean zegoen beste agente bat ere hil zuten: José Torralba López. Udalbatzak atentatua kondenatu zuen.

Julio Santiago Expósito Pascual

Sestaon hil zuten 1980/06/20an. Merkataria zen, 23 urte zituen eta ezkongabea zen.

Su-armaz egindako atentatua, familiak Sestaon zeukan Exposito jostundegitik irtetean. Biktima aitarekin etxera zihoan bazkaltzera, eta erasotzaileek aita baztertu eta metraileta batekin egin zioten tiro.

Joaquín Becerra Calvente

Amurrion (Araba) hil zuten 1980/07/2an. 40 urte zituen, eta ezkongabea zen.

Tubos del Nervión enpresako espezialista. Familiak Amurrion zuen La Florida tabernan ere lan egiten zuen. UGT sindikatuan afiliatuta zegoen.

Su-armaz egindako atentatuan hil zuten. Amurrioko Udalbatzak atentatua gaitzetsi zuen. Tubos del Nervión fabrikako langileek lan-uzteak eta kontzentrazioak egin zituzten.

Mario González Blasco

Eibarren hil zuten 1980/08/2an. 51 urte zituen, eta bi seme-alaba. Gallartako (Bizkaia) Agruminsa enpresako soldatzailea. CCOO sindikatuan afiliatuta zegoen.

Lanetik ateratzean, lankide batekin batera Land Rover batean etxera zihoala, bahitu egin zuten. Gorpuak, zortzi bala-zaurirekin lurrean etzanda, ordu batzuk geroago aurkitu zuen Eibarko Aginaga auzoko bizilagun batek. Gorpuak urte hartako otsailaren 2an BVEk hildako *Jhisa* ezizenez ezaguna zen Jesús Zubikarairen argazkia zuten prentsa-zatiak zituen bularrean erantsita. 2008ko abenduan, Eibarko Udalak Mario Gonzálezzen eta herrian hildako beste biktima batzuen omenezko ekitaldi bat antolatu zuen.

Antonio García Argente

Markinan hil zuten 1980/09/20an. Guardia Zibila. 20 urte zituen, eta ezkongabea zen.

Su-armak erabiliz gertutik egindako atentatua Markina-Xemeingo Arrieta jatetxean, Guardia Zibilaren kuarteletik hurbil. Beste hiru guardia zibil hil ziren atentatuan: Miguel Hernández Espigares, Alfonso Martínez Bellas eta Mariano González Huergo.

José Ignacio Ustarán Ramírez

Gasteizen hil zuten 1980/09/29an. 51 urte zituen, eta lau seme-alaba. Industria-peritua. Unión de Centro Democrático (UCD) alderdiko kidea.

Gasteizko bere etxean bahitu zuten, eta San Prudentzio kaleko garajearen sarreran, Unión de Centro Democrático (UCD) alderdiaren egoitzaren ondoan, hilda aurkitu zuten.

Carlos García Fernández

Eibarren hil zuten 1980/10/7an. 55 urte zituen, eta bost seme-alaba. Eibarko estanko baten jabea. Francoren Guardiako eta Mugimendu Nazionalako kide ohia. Sindikatu-bitartekaria izan zen Eibarko Orbea enpresan lanean aritu zen garaian.

Eibarko bere establezimenduan su-armaz egindako atentatua.

Juan de Dios Doval Mateos

Donostian hil zuten 1980/10/31n. 37 urte zituen, eta bi seme-alaba. Zuzenbide Prozesaleko irakaslea zen UPV/EHUko Donostiako Kanpusean. Unión de Centro Democrático (UCD) alderdiko zuzendaritza-batzordeko kidea zen.

Bere autoan zegoela su-armaz egindako atentatua. Atentatuaren berri izan bezain laster, Zuzenbideko Fakultatean jarduerak bertan behera geratu ziren, ikasleek batzarra egin zuten eta, gero, manifestazioan joan ziren Foru Aldundiraino.